



Euskal Herriko lesbiana, gay, bisexual,
trans eta intersexualen elkarte

Asociación de gais, lesbianas, bisexuales,
trans e intersexuales del País Vasco

GEHITU ELKARTEAREN ESTATUTUAK

EUSKAL HERRIKO LESBIANA, GAY, BISEXUAL, TRANS ETA INTERSEXUALEN ELKARTEA / ASOCIACIÓN DE GAIS, LESBIANAS, BISEXUALES, TRANS E INTERSEXUALES DEL PAÍS VASCO

I. TITULUA: NORTASUNA ETA OINARRIZKO ALDERDIAK

1. Artikulua- Gehitu, Euskal Herriko lesbiana, gay, bisexual, trans eta intersexualen elkarte/ asociación de gays, lesbianas, bisexuales, trans eta intersexuales del País Vasco irabazi asmorik gabeko elkarte gisa sortu zen honako data honetan: **1997ko urriaren 25ean**, eta erregistroan sartu zen beste honako data honetan: 1997ko abenduaren 19an, eta erregistro zenbakia honako hau du: **G/07099/1997**. Estatutuak martxoaren 22ko Elkartze Eskubidea Arautzeko 1/2002 Lege Organikoaren eta ekainaren 22ko Euskadiko Elkarteen 7/2007 Legearen aginduetara egokitzeko aldatu ditugu 2011ko otsailaren 26an eginiko Batzar Nagusi Berezian. Geroago, 2016ko otsailaren 16an eginiko Batzar Nagusi Berezian erabakiz aldatuak izan dira. Azkenik, 2019ko martxoaren 1ean eginiko Batzar Nagusi Berezian erabakiz aldatuak izan dira.

Elkarte hau aipatu berri ditugun Elkarteen lege horiei jarraituko zaizkio, bai eta Estatutu hauei ere, legearen aurka ez badira, eta elkarteak dituen gobernu organoen erabakiei ere, baldin eta legearen edota estatutu hauen aurka ez badira, eta jarraituko zaizkio ere Eusko Jaurlaritzak har ditzakeen arauzko xedapen osagarriei ere.

Gehituen jardunaren zutabe eta bere nortasunaren oinarri da lesbianen, gayen, bai eta transexualen eta bisexualen eskubide eta interesen alde modu antolatuan aritzea; elkartearen partaide daitezke aipaturiko egoeran direnak eta hauen duintasunaren alde eta gizaki orok bere afektibitatea eta sexualitatea adierazteko eta osoki garatzeko behar duen askatasunaren alde diren guztiak.

2. Artikulua.- Elkarteen lurralde esparrua Euskal Herria da.

3. Artikulua.- Elkarteen egoitza nagusia Donostian da, Colon kaleko 50ean. GEHITUK beste egoitzak ireki ahalko ditu, bere jardunaren lurralde esparruan, estatutuen helburuak iristearren.

4. Artikulua.- Elkarreak ez du sortze ondarrerik. Honako diru baliabide hauek ditu:

- a) Bazkide diren edo ez direnek emaniko dirua.
- b) Bazkide, laguntzaile edo bestelako pertsona fisiko edo juridikoek eskainiriko emaitza, oinordekotza edo onegintzazko beste edozein ekarpen.



Euskal Herriko lesbiana, gay, bisexual,
trans eta intersexualen elkarte

Asociación de gays, lesbianas, bisexuales,
trans e intersexuales del País Vasco

- c) Herri administrazioek emaniko diru laguntzak.
- d) Bere jardunerako eskuratuko dituen ondasunak
- e) Antolatuko dituen jarduerak ekar ditzaketan diru sarrerak.

Elkartearen egitekoaren jarduna eta jardun ekonomikoa urteari lotuko dira eta abenduaren 31 bakoitzean amaituko dira.

Elkartearen jarduera ekonomikoak egitetik eratorritako irabaziak, zerbitzuak eskaitzetatik eratorritakoak barne, soil-soilik bideratu beharko dira elkartearen xedeetara, irabazi horiek inolaz ere banatu gabe elkarteko kideen artean, beren ezkontideen artean edo haiekin antzeko afektibitate harremana duten bizikideekin artean, ezta haien senitartekoen artean ere, eta irabazi horiek ez zaizkie doan lagako irabazi-asmoa duten pertsona fisikoei edo juridikoei.

II. TITULUA: GIZARTE HELBURUA ETA IDEIAK.

5. Artikulua.– Elkarteak gay, lesbiana, bisexual eta transexualak osoki bizi ahal daitezen, eta joera heterosexuala dutenekin berdintasunez gizartean parte hartzeko aukera dezaten behar diren baldintzak sortu eta areagotzea du helburu.

Hori dela eta Elkarteak honako helburuak dituzten jarduerak bultzatuko ditu:

- a) Orientazio sexuala edota sexu-identitatea direla-eta tratu berdina jasotzeko eta bereizkeriarik ez jasateko eskubidearen defentsa eta sustapena.
- b) Gay, lesbiana, bisexual eta transexualei laguntzea, euren nortasun sexuala bai pertsona-mailan bai gizarte-mailan armoniaz eta betetasunez bizi dezaten
- c) Joera homosexuala dutenen eskubideen alde eta hala gizartean nola legetan ere heterosexualakiko berdintasunaren alde aritzea
- d) Izaera homosexualari buruzko kultura zerbitzu eta produktuak zabaltzea
- e) Jolas, kultura eta gizarte guneak sortzea, horietan bai homosexualak bai lesbianek, bai eta transexualek normaltasunez jokatu ahal dezaten, euren orientazio sexuala dela-eta diskriminaziorik jasan gabe
- f) Izaera homosexualari dagozkion gaiei buruzko informazioa eskaintzea.
- g) Belaunaldi sektore batzuek dituzten politika berezietan esku hartzea; halatan gazteen eta zaharren esparruetan ekintza positiboak proposatu.
- h) Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuneko politiketan esku hartu
- i) Senitarte kontzeptuak seme-alabak dituzten gay eta lesbianak har ditzala bultzatu, bai eta gaur egun senitartea ulertu ohi den modu estuaz harat senitarte zabal anitz eta demokratikoa hedatu.
- j) Beste herrialdeetako lesbiana, gay eta transexualei lagundu eta atzerriko herrialdeetan halakoak biltzen dituzten edo haien alde ari diren elkarteekin lankidetzan eta elkarlanean aritzeko jardunak eta proiektuak ezarri, hartara mundu osotik ezaba ditzagun joera homosexualen edo nortasun transexual edo transgenderodunen aurkako gorrotoa, herra, jazarpena eta kriminalizazioa, bai eta haien giza-eskubideen alde egin ere,



Euskal Herriko lesbiana, gay, bisexual,
trans eta intersexualen elkartea

Asociación de gais, lesbianas, bisexuales,
trans e intersexuales del País Vasco

- batez ere eskubide horiek, honengatik edo hargatik, urratzen diren edo urratuak izateko arriskuan diren herrialdeetan.
- k) HIESAri eta sexu bidez kutsatzen diren beste infekzioei aurre hartzea, bai eta seropositibo direnen aldeko eta haiekiko elkartasuneko programak egitea.
 - l) Seropositibo direnen aurkako zeinahi bereizkeriaren aurka aritzea.
 - m) Gay, lesbiana, transexualen eta bisexualen osasunarekin loturiko programak egitea.

6. Artikulua.– Elkarrekin bi lan arlo ditu. Alde batetik bazkideei zerbitzuak eta arreta eskainiko dizkie. Bestaldetik gizartean arituko da, gizartean eragina eta garrantzia dituzten ekintzak antolatuz. Elkarrekin erakundeenganako asmo osoa du eta Elkarrekinaren helburuak dituzten herri aginteekin eta Gobernu Kanpoko bestelako Erakundeekin batera arituko da.

7. Artikulua.– Elkartea Gobernu Kanpoko Erakundea da, politikoki zehaztu gabea eta halatan ez da erakunde politikoekin organikoki edota finko lotuko.

8. Artikulua.– Elkartea elkarlanean arituko da bai erakunde publikoekin bai Gobernu Kanpoko beste Erakunde batzuekin, ondoko helburuak lortzeko: ekimenak denon artean antolatzea, gizartearen gaur egungo oinarriak eta gizarte-balioak politikoki aldatzea, eta legeekin ere beste horrenbeste egitea orientazio homosexuala duten pertsonen inongo bereizkeriarik jasan ez dezaten eta pertsona heterosexualekin zeharo berdinduta egon daitezen.

9. Artikulua.– Elkarrekin kontuan hartzen du lesbianak, gayak, transexualak eta bisexualak, hala historian zehar nola orain bertan ere, bortizkerien –fisiko nola hitzezkoen- jasale izan direla, eta halatan bere egiten ditu eta hedatzen saiatuko da gizartearen antolaketaren oinarri finkotzat askatasuna, aniztasuna eta berdintasuna bultzatuko dituzten printzipio etikoak eta elkarriketa eta ideien eztabaida arrazionala eta elkarbizitza baketsua zaizkio gizakien harremanetarako bidea. Halatan, Elkarrekin bete-betean gaitzesten du bortizkeria, Elkarrekinaren ideien oinarri diren printzipioen aurkakoa baita.

III. TITULUA: ELKARTEKO KIDEAK.

10. Artikulua.– Horra nortzuk izan daitezkeen Elkarrekin kideak: euren orientazio sexuala zeinahi delarik ere Elkarrekinaren helburu sozialarekin eta ideiekin bat egiten duten adindunak edo burujabe diren adingabeak, jarduteko gaitasuna badute, elkarrekinarekiko betebeharrak betetzen badituzte eta diziplina edota kanporatze dosieraren menpean ez badaude.

Gehituko kide izan daitezke 14 urtetik gorako adingabe burujabe ez direnak ere, baldin eta beren gaitasun juridikoaren ordezkari eskudun direnek beren onespena idatziz ematen badute.

11. Artikulua.– Elkarrekin lotzeko bi bide dira: bat eskubide osoko bazkide gisa, elkarrekin ezarritako kuota ordainduz, ezinbestekoa baita organo erabakitzaileetan, batzordeetan edota Elkarrekinaren babesera antolaturiko zeinahi lan taldeetan parte



Euskal Herriko lesbiana, gay, bisexual,
trans eta intersexualen elkarte

Asociación de gais, lesbianas, bisexuales,
trans e intersexuales del País Vasco

hartzeko bestea laguntzaile gisa. Laguntzaile pertsona fisiko nahiz juridikoak izan daitezke; azken hauek Batzorde Eragileak sinaturiko lankidetzaren itun baten bidez, eta edonolako funts edo lana emanen diote Elkarteari, ezpada Batzorde Eragileak horretarako debekua erakutsi duela.

12. Artikulua.– Bazkide izateko eskaerak Batzorde Eragileak aztertu eta, hala dagokionean, gehiengo osoz onartuko ditu. Ez onartzea estatutuen arabera argudiatu beharko du. Batzar Nagusiak Batzorde Eragilearen erabakia baliogabetu dezake.

13. Artikulua.– Bazkideek honako eskubide hauek dituzte:

- a) Elkarrearen jardunaren, ekintza eta egitekoen berri jaso.
- b) Elkarrearen gobernu eta ordezkatzeko organoen osakerari buruzko eta diruen egoeraren gaineko informazioa eskura izatea, bai eta betiere Elkarrearen gainerako bazkideen izenak ezagutzeko aukera, diru sarrera eta irteeren egoera ezagutzeko aukera eta Elkarrearen jardunaren berri ukateko aukera.
- c) Elkarreak antolaturiko jardueretan parte hartzea
- d) Elkarrearen gobernu eta ordezkatzeko organoetan eta sorturiko batzordeetan parte hartzea, eta hautatzaile eta hautagarri izan, Estatutu hauek diotenaren arabera.
Burujabe ez diren adingabeek ezin dute Batzorde Eragileko kide izan, legeak hala baitu agintzen.
- e) Egoitza zabal den orduetan erabiltzea.
- f) Elkarrearen liburutegia, bideotegia eta hemeroteka baliatzea
- g) Informatika eta taberna zerbitzuak, ordaindu behar dena ordainduz, erabiltzea
- h) Batzar orokor, arrunt edota berezietan, bai eta batzorde, arlo eta lurralde ataletan hitza eta botoa baliatuz parte hartzea; horren egiteko beste kide izenda ditzake bere ordezkari.
- i) Diziplina zigorren bat jaso aitzin entzunak izatea
- j) Estatutuen eta horien garapenerako Araudirik idatzi bada halakoren ere ale bana edukitzea, bai eta organo erabakitzaileei eskaerak eta eta kexuak azaldu ahal ukatea; eskaera edo kexua Batzorde Eragileari aurkeztuko zaio eta honek eskaera Elkarrearen sarrera liburuan sartzen den egunetik hilabeteko epean erantzun behar du. Eskaerari ez bazaio erantzuten, bazkideak Batzar Nagusiari eska diezaioke eta honek eskaera aurkeztu ondorengo hurrengo bileran eztabaidatu beharko du eskaera eta arrazoituriko erantzuna eman.
- k) Elkarreen legearen edo eta Estatutuen aurkako diren erabaki eta jardueri aurka egitea, auzi jartzaileak aurka eginiko erabaki edo jardueraren berri ukan duenetik edo jakin zezakeen egunaren biharamunetik berrogei egunen epean.
- l) Indarrean den legeriak aginduriko bazkideen fitxategian azaldu eta Elkarrearen ikurra erabili, halakorik balego.
- m) Edozein unetan baja ematea. Hala ere, hartu bai, baina bete gabe dituzten konpromisoak bete beharko dituzte.

14. Artikulua.– Bazkideek Elkarrearen helburuen alde aritu beharra dute, eta aldi berean hileroko kuota dute ordaindu beharra, urtero Batzar Nagusiak ezarria. Gutxieneko eta borondateko kuotak daude. Hiru hilabetez ordaindu ezean bazkidea zorretan da eta eskubideak galdu ditu, bai ordezkatzekoak nola hitza eta botoa ere.



Euskal Herriko lesbiana, gay, bisexual,
trans eta intersexualen elkarte

Asociación de gais, lesbianas, bisexuales,
trans e intersexuales del País Vasco

Elkarteko bazkideen eskubideak baliatzeko bazkideak gutxieneko kuota ordaindua behar du. Diru arazoak dituela eta kuota ordaindu ezin duen bazkideak Batzorde Eragileari eska diezaioke, arrazoiak azalduz, alegiazko kuota ezar diezaiola. Edonolaz ere, arrazoi argi eta garbitzat hartuko da langabeen denaren froga agiria.

30 urtez beheko bazkideek gazte kuota ordain dezakete, Batzarrak ezarria.

15. Artikulua.– Bazkide edo laguntzaile izaera honakoetan galduko da:

- a) Hiltzean
- b) Baja idatziz eskatuz gero
- c) Baztertua izateko zigorra jasoz gero, Estatutu hauek diotenari, Batzar Nagusiak, edo Batzorde Eragileak behar bezala erabakitakoari nahita kalte larri eta errepikatua egiteagatik

16. Artikulua.–

1.-Bazkideek eta laguntzaileek Estatutu hauek eta horien garapenerako arauak onartu behar dituzte eta Elkartearen organo erabakitzaileek behar bezala harturiko erabakiak bete behar dituzte eta beren jarduera estatutuetako eta erreglamentuko arauetara egokitu behar dituzte. Baldin eta bazkide edo laguntzailearen batek ez badu betebeharrak hau betetzen Batzorde Eragileak Idazkaritza Nagusiari eska diezaioke alde aurreko eginbideak bidera ditzala betetze ez horren gaineko informazioa lortzearren. Batzorde Eragileak jasotako informazioa aztertu eta auzibide agiria artxiba dadila agindu dezake edo, hala badagokio, zigor dosierra ireki.

2.- *Alegazioak:* Zigor dosierra irekitzea erabakiko balitz, Idazkaritza Nagusiak gertaturikoa egiaztatu eta egileari idatziko dio egozten zaizkion karguak adieraziz; honek bere alde esateko duena erantzuteko hamabost egun ditu, karguen idatzia jaso duen egunetik hasita.

3.- *Zigor-proposamena:* Alegaziotarako epea amaitutakoan gaia Batzorde Eragileari igorriko zaio; honek dosierra jaso eta biltzen den lehen aldi hartuko du horren gaineko erabakia. Batzorde Eragileak bilkura horretan gehiengo oso hartu beharko du zigor dosierraren gaineko erabaki arrazoitua eta Batzar Nagusiari igorriko dio behin betiko erabakia izan dadin.

Zigor proposamena izanen da bazkide edo laguntzaile gisa pertsona horrek dituen eskubideak etetea, gutxienez hiru hilabetez eta gehienez urtebetez, baldin eta arau haustea arina izan bada. Batzorde Eragilearen ustetan hutsa larria bada, bazkidea kanporatua izan dadila proposatuko du, edo laguntzaileen kasuan lankidetzan behin betiko uztea. Huts larri izanen da elkartearen organo erabakitzaileek harturiko erabakiak ez betetzea, Estatutu hauen lehen artikulua edota II. Tituluaren aurka denean.

4.-*Auzibide agiria artxibatzea:* Batzorde Eragileak bilera horretan auzibide agiria artxiba dadila erabaki dezake ere, hutsik egozterik ez dela ustez gero. Horrelakoetan Batzar Nagusia gaiaz arduratuko bada, taldearen laurdenak behar du, gutxienez,



Euskal Herriko lesbiana, gay, bisexual,
trans eta intersexualen elkarte

Asociación de gais, lesbianas, bisexuales,
trans e intersexuales del País Vasco

eskatu; hala bada, hurrengo bileran gehiengo osoz alda dezake Batzorde Eragileak harturiko erabakia eta, hala badagokio, zigor erabakia hartu.

5.- *Zigor erabakia*: Zigor erabakiarekin bat, Batzorde Eragileak Batzar Nagusiari zigor dosierraren berri emanen dio; dosierraren jasaleak aurkezturiko alegazio idatzia, halakorik bada, erantsiko dio eta dosierraren sorburu diren gertakarien berri emanen, Batzar Nagusiak dagokion zigor erabakia har dezan; erabakia gehiengo soilaz hartuko du Batzorde Eragileak eginiko proposamenaren haritik badoa edo zigor arinagoa erabakitzen badu, eta gehiengo osoz baldin eta zigor gogorragoa erabaki nahi badu.

6.- *Arrazoiak eta helegitea*: Batzar Nagusiaren zigor erabakiak behar beste arrazoi eman beharko du eta izatezko eta zuzenbidezko zioak aipatuko ditu laburki; dagokionari jakinaraziko zaio erabakia hartu eta hamar egunen epe barruan, jakitera eman ez ere helegitea duela lehen Batzar Nagusiaren aurrean, eta halakorik hiru hilabeteren buruan egitekorik ez bada, epe horren barruan soilik horretarako izanen den batzar berezia beharko da deitu. Batzar Nagusiak arrazoiak azaldu eta bertan behera utz dezake Batzar Nagusiaren erabakia.

Batzar Nagusiaren aurrerako helegitea zigorraren berri jaso eta hamabost egunen barruan aurkeztu beharko zaio Idazkaritza Nagusiari.

Batzar Nagusiaren zigor erabakiaren aurkako helegitea egin daiteke eskumena duen epaile-organuaren aitzinean, erabakia legearen edota Estatutu hauen aurkakotzat hartuz gero.

7.-*Zigorraren eragina etetea*: Batzar Nagusiaren aitzinean zigor erabakiaren aurka egiteak eteten du zigor erabakia. Batzorde Eragileak erabaki ahalko du, elkartearen interesa dela medio eta zigor erabakiaren aurkako helegitea erabaki artean, dosierra jasaten duenaren eskubideak behin-behinean etetea, eta edonola ere, aldi horretarako pertsona hori kendu elkarteko zernahi organotan lituzkeen karguetatik.

Auzitegietara jotzeak ez du zigor erabakiaren eragina eteten, ez bada aurkako epaia ematen.

17. Artikulua.– Laguntzaileek elkartearen jardunen berri jaso dezakete, bereziki emaniko diruak zertan erabili diren.

18. Artikulua.– Bazkideen eta laguntzaileen datuak Idazkaritza Nagusiak gordeko ditu eta ez zaizkio dagokionaren baimena gabe inori emanen, ez bada administrazioaren edo epaileen erabakiz. Batzorde Eragileak, betiere zergatiak azalduz, elkartean koordinazio lanetan ari direnei eman diezaike eskua bazkide eta laguntzaileen datuak erabiltzeko beren koordinazio lanei loturik badira eta beren egitekoak betetzeko behar badira, eta betiere norbanakoen datuak babesteko legeria betez.

Bazkideen eta laguntzaileen diru ekarpenen gaineko datuak Idazkaritza Nagusiak gordeko ditu eta hauek ere ez zaizkio dagokionaren baimena gabe inori emanen, ez bada administrazioaren edo epaileen erabakiz.

IV. TITULUA Elkartearen organo erabakitzaileak.



Euskal Herriko lesbiana, gay, bisexual,
trans eta intersexualen elkarte

Asociación de gais, lesbianas, bisexuales,
trans e intersexuales del País Vasco

19. Artikulua.– Honako hauek dira elkartearen organo erabakitzaileak: Batzar Nagusia eta Batzorde Eragilea.

20. Artikulua.– **Batzar Nagusia:** Batzar Nagusia elkartearen organo gorena da eta kuotaren ordainketa betea duten bazkideek dute osatzen. Arruntki urtean behin bilduko da eta modu berezian Batzorde Eragileak deitzen badu edo eskubide osoko bazkide guztien bostenak, bederen, modu egiaztatuan eskatuz gero.

21. Artikulua.– Batzar Nagusirako deia Batzorde Eragileak du eginen, biltze data baino gutxienik hamabost egun lehenago; Batzar Berezien deia, berriz, gutxienik zazpi egun lehenago behar du egin. Batzarrerako deia posta arruntez emanen da jakitera, gai zerrenda adieraziz; ezin aztertuko da, zerrendatik at den gairik.

22. Artikulua. – Batzar Nagusiari honako hau dagokio:

- a) Urterako Jardun Plana erabaki eta aurreko urtean egindakoa aztertu.
- b) Urteko aurrekontua erabaki.
- c) Aurrekontuaren gauzatzeari dagokion urteko kontua onartu.
- d) Elkartearen aurrekontuaren kredituan aldaketak onartu.
- e) Aurrekontuaren gauzatzea gainbegiratu.
- f) Amaituriko aurrekontu ekitaldi baten kontuen kitzatzea onartu.
- g) Batzorde Eragilea hautatu.
- h) Estatutuak Batzar Nagusi Berezia aldatu.
- i) Batzorde Eragilearen aurkako gaitzespen mozioa erabaki.
- j) Elkarte Batzar Nagusi Berezia desegin.
- k) Elkartearen ondasunen gaineko erabakiak hartu.
- l) Elkarte mantentzearen bazkideek ordaindu beharreko urteko kuotaren zenbatekoa ezarri.
- m) Gay eta lesbianen elkarten federakuntza edo konfederakuntza bat edo bestean sartu edo ateratzea erabaki.
- n) Batzorde Eragileak bazkideren bat ez onartzeko harturiko erabakia baliogabetu, bai eta 16. artikuluari jarraiki, Batzar Nagusiak berak harturiko zigor erabakiak baliogabetu ere.
- o) Lurraldeetako Atalak sortu eta oro har lituzketen egitekoak zehaztu.
- p) Ontzat ematea ekintza judizialak abian jartzea edo Gehituren interespeko prozedura judizialetan pertsonatzea, edo, kasua balitz, berrestea Batzorde Eragileak, bereziki premia handiko kasuetan, zentzu horretan har litzakeen behin behineko erabakiak.
- q) Batzorde Eragilearen jarduna gainbegiratu eta bultzatu. Horretarako honako hau egin dezake: Batzorde Eragileari osotara edo batzordekide bati galdetu, edota Batzorde Eragileak bete beharko dituen erabakiak hartu.
- r) Herri administrazioekin edo bestelako erakundeekin lankidetzak hitzarmenak sinatzea erabaki.
- s) Elkartearen batzorde kopurua eta bakoitzaren zeregin orokorrak zedarritu.
- t) Joera homosexualdunen edota nortasun transexualdunen, edo pertsona horien eskubideen aldeko atzerriko herrialderen bateko elkarte edo erakunde batekin lankidetzak hitzarmena sinatu, Batzorde Eragileak eginiko proposamena jaso ondoren.



Euskal Herriko lesbiana, gay, bisexual,
trans eta intersexualen elkarte

Asociación de gais, lesbianas, bisexuales,
trans e intersexuales del País Vasco

u) Bazkideak behin-betiko elkartetik kanporatzeko erabakia hartzea.

Batzar Nagusia bilkura berezian bilduko da Batzorde Eragileak erabakitakoan, berekabuz edota bazkideen %25k eskatu duelako, bilkura eskatzeko arrazoiak eta helburuak azalduz, eta betiere, honako gaiak aztertzeko eta erabakitzeko:

- a) Estatutuak aldatzea.
- b) Elkarte desegitea.

23. Artikulua.– Batzar Nagusiak bertan direnen gehiengo soilaz hartuko ditu erabakiak, Estatutuek ez badiote bestela. Botoa modu gordean emanen da bazkideren batek hala eskatuz gero. Berdinketa bada berriro bozkatukoda eta berriro ere berdinketa bada gaia ezetsizat hartuko da.

24. Artikulua.– Bazkideek botoa beste bazkideren baten esku utz dezakete, honek batzarrean ordezkak ditzan. Boto ordezkaketak Idazkaritza Nagusiari aurkeztuko zaizkio bilkura hasi aitzin.

Bazkide bakoitzak gehienez ere beste bi pertsona bazkide ordezkatu ahal izango ditu Batzarrean, baldin eta, ezarritako prozedurarekin bat etorritik, berariaz, idatziz, garaiz eta modu egokian, botoak bere esku utzi badituzte.

25. Artikulua.– Bilkura baliagarri izan dadin lehen deialdian bazkideen gehiengoak izan behar du bertan. Bigarren deialdian organoa behar bezala osatua izanen da bertan diren bazkideekin.

26. Artikulua.– Batzar Nagusiaren buru honako karguez osaturiko Mahaia izanen da: Elkarrearen Idazkari Nagusia, Batzarraren lehendakaria eta batzarkide bat. Azken hiru kargu hauek Batzar bakoitzak hautatuko ditu, ezin dituzte Batzorde Eragilearen kideek hartu eta gizonak eta emakumeak izan daitezzen saiatu beharko da.

27. Artikulua.– Batzar Nagusiaren bilkuretara laguntzaileak joan daitezke; hitza dukete baina ez botorik; halaberean, bilkurara hurbil daitezke interesa duten bestelako pertsonak ere, ez hitz eta ez botorik dutela eta haien etorrerarako idazkaritza Nagusiaren baimena beharko da.

28. Artikulua.– Batzar Nagusiaren bilkuren akta jasoko da eta Idazkaritza Nagusiak sinatuko du eta hurrengo Batzarrak onartuko.

29. Artikulua- Batzorde Eragilearena: Batzorde Eragilea hiru kidek osatuko dute, eta lehendakariari, idazkari nagusiari eta diruzainari dagozkion karguak beteko dituzte, gehienez 7 bozeramale izendatu daitezkeelarik.

Edonola ere, lehendakaritzan emakumeak eta gizonak txandakatu daitezela ahaleginduko dira, eta Batzorde Eragileak berdintasunezko osaera izan dezan.

Batzordeak antolamendu edo funtzionamendurako Araudi bat prestatuko du bertako kideen funtzioak zehaztearren. Halaber, Gehituen bozeramailletza lanak nola egingo diren erabakiko du.



Euskal Herriko lesbiana, gay, bisexual,
trans eta intersexualen elkarte

Asociación de gais, lesbianas, bisexuales,
trans e intersexuales del País Vasco

Batzordeetako eta elkartearen lan-taldeetako koordinatzaileek bozaz baina botorik gabe parte hartuko dute Batzorde Eragilearen bileretan, eztabaidatuko diren gaien arabera hark deitzen dienean.

Gehituko langileek Batzorde Eragilearen bileretan parte hartuko dute, hark deitzen dienean eta parte-hartzea bozaz baina botorik gabeko parte hartzea izango da langilea Batzordearen kide direnean ezik.

Efikazia eta efizientzia maila gorenak lortzeko helburuarekin, eta Bulego Teknikoaren eginkizunen optimizatze aldera, Batzorde Eragileak Bulegoa osatzen duten pertsonen lana eta jardueren inguruko informazioa erraz iritsi daitezkeen ahalbidetuko duten eta, halaber, langileen arteko eta langileen eta Batzorde Eragilearen arteko informazioaren koordinazio egoki bat ahalbidetuko duten funtzionamendu-arauak gaituko ditu.

Bestalde, Batzorde Eragileak elkartearen batzordeak koordinatzen dituzten pertsonen parte-hartzea eta laguntza eskatuko du hala nola Batzorde Eragilearen betebeharretan aholkatu eta lagundu dezaketen pertsonena ere.

30. Artikulua.– Lehendakariari dagozkio elkartearen ardura eta gidaritza nagusia. Zehazki, eginkizun hauek izango ditu:

- a) Elkartearen ordezkatu
- b) Gehituen organo erabakitzaileek harturiko erabakiak bete
- c) Gehituen jardunak, bere batzorde, alor eta lurraldeetako atalenak ere bai, koordinatu
- d) Batzorde Eragilearen bileren buru izan
- e) Gehituen izenean kontratu eta hitzarmenak sinatu, aurretiaz Batzorde Eragileak halakorik erabaki badu
- f) Gehitu ordezkatu epaile eta auzitegien aitzinean elkarteak hasitako jardunbideetan edo beste batek hasi eta elkarteak aurkeztea erabakirikoetan.

31. Artikulua.– Batzorde Eragilearen idazkari nagusia da Elkartearen idazkaria eta honako egiteko hauek ditu: bazkide edo laguntzaile izateko eskaerak jaso eta tramitatu, bazkide eta laguntzaileen fitxategia eta erregistro liburuaren ardura, eta akten liburua zaindu eta idatzi. Era berean, bere kargu du elkartei buruz indarrean den legeria bete dadila bermatzea, elkartearen dokumentazio ofiziala zainduz, elkartearen liburuaren eta artxiboen edukia egiaztatuz eta dagokion administrazioari jakitera emanaz Batzorde Eragilearen osaketan, estatutuetan edota helbidean gerta daitezkeen aldaketak.

32. Artikulua.– Batzorde Eragilearen kideak Batzar Nagusiak aukeratuko ditu, zerrenda itxien bitartez, bi urterako. Gerta daitezkeen bajak ordeztekoak Batzorde Eragilearen gainerako kideek elkarrekin hautatuko dituzte eta hurrengo Batzar Nagusiak berretsiko ditu.

33. Artikulua.– Batzar Eragilearen kideak Batzar Nagusiak ken ditzake karguetatik, Batzorde osoaren aurkako gaitzespen mozioa onartuz. Gaitzespen mozioa bazkideen bostenak aurkez dezake eta ordezko Batzorde Eragilea proposatu behar du. Mozioa



Euskal Herriko lesbiana, gay, bisexual,
trans eta intersexualen elkarte

Asociación de gays, lesbianas, bisexuales,
trans e intersexuales del País Vasco

batzarturikoen gehiengo osoz onartuko da eta ordurarteko Batzorde Eragilearen kideen kargu uztea eta aldi berean gaitzespen mozioa aurkeztu duten bazkideek proposaturiko hautagaiak hautatzea dakar.

34. Artikulua. – Hona hemen Batzorde Eragileak erantzunkizuna duen gai nagusiak:

- a) Elkartearen gobernu eta administrazioaren zuzendaritza, Estatutu hauetan agindutakoa eta Batzarrak harturiko erabakien harira
a bis) Bulego Teknikoaren funtzionamenduaren arauak finkatu, langileen kontratazio baldintzekin bat datozen betebeharrak zehatzak agindu eta beraien lana gainbegiratu.
- b) Gehituen kanpoko irudia eta ordezkapenaren ildoak erabaki.
- c) Elkartearen diruen kudeaketaren eta aurrekontuak gauzatzearen zuzendaritza. Hiru hiletik behin Koordinazio Batzordeari kudeaketa txostena igorriko zaio.
- d) Urteko Egitekoen Planari loturiko diru laguntzak eskatzeko ildoak ezarri eta dagokion batzordeari entzun eta kudeaketa ikuskatu.
- e) Elkartearen egitekoak ikuskatu eta erabaki, zentzu honetan, Bulego Teknikoak burutu beharko lituzkeen egitekoak.
- f) Elkartearen langileak kontratatu, aitzinetik bazkideei bederen, kontratazio eskaintzaren, prozeduraren eta oinarrien berri eman. Pertsona fisiko edo juridikoekin kontratuak sinatu.
- g) Batzar Nagusiaren erabakiak beteko direlako ardura hartu.
- h) Elkartearen egoitzen kudeaketaz arduratu.
- i) Beste inori agintea eman, erreklamazioak egin eta administrazioaren edota auzitegien aitzinean jokatu, emariak, legatuak eta oinordekoak jaso. Hori guztiaren berri Koordinazio Batzordeari emanen zaio, hurrengo bileran eman ere.
- j) Batzorde Eragileak konfiantza arazoa aurkez diezaioke Batzarrari. Konfiantza lortu ezean, Batzorde Eragilea kargu gabe geldituko da eta Batzorde Eragile berria hautatu arte jardunean jarraituko du. Konfiantza arazoa ezesten denetik hilabeteko epean gehienez bilduko da Batzarra Batzorde Eragile berria hautatzeko.
- k) Gehituen helburuei loturiko interesen alde auzi prozedurak abiarazteko edo abiatutakoetan parte hartzeko behin-behineko erabakia hartu eta Batzarrari erabakia berrets dezan aurkeztu.
- l) Elkartearen batzorde eta lurralde atalen jardunak Bulego Teknikoaren bitartez ikuskatu.
- m) Honako zeregin hauen arduradunak izendatu: Aldizkaria, web orria, liburutegia eta elkartearen irudi eta publizitatea, dagokion batzordeari entzun ondoren.

34 BIS Artikulua.– Bulego Teknikoari buruz Enplegatuek osatutako Bulego Tekniko bat izango du Gehituk, zeinak Batzorde Eragilearen zuzendaritzapean eta hark gainbegiratuta honako funtzio hauek izango dituen:

- a) Harremanak administrazioekin eta erakundeekin presidentziaren zuzendaritzapean eta Batzorde Eragiletik ateratako jarraibideen markoan.
- b) Harremanak komunikabideekin eta elkartearen bozeramaile gisa jardutea aurreko puntuko baldintza beretan.



Euskal Herriko lesbiana, gay, bisexual,
trans eta intersexualen elkarte

Asociación de gais, lesbianas, bisexuales,
trans e intersexuales del País Vasco

- c) Diru-laguntzak eskatzea, kudeatzea eta justifikatzea, helburu estrategikoei dagokienez Batzar Orokorretik ateratako jarraibideei jarraikiz, baita Batzorde Eragileak edo egungo batzordeek egin edo sor ditzaketen proposamenetatik ateratakoei ere. Edozein kasutan, kontsulta egingo zaio Bulego Teknikoari diru-laguntzen eskariari buruz eta egungo lan-karga hartuko da kontuan.
- d) Elkartearen administrazio- eta kudeaketa-zereginak. Era berean, Batzorde Eragilearen erabakien administrazio exekutatzailerak izango da Batzorde Teknikoa.
- e) Batzordeen laguntza logistikoko eta administrazio zereginak, Batzorde Eragileak adosten dituen kasu eta baldintzetan.
- f) Arreta elkartearen telefono-zerbitzuari, baita ohiko postari eta posta elektronikoei ere.
- g) Elkartearen egoitzaren edo egoitzen kudeaketa Batzorde Eragileak finkatzen dituen baldintzetan.
- h) Arreta bazkideei Batzorde Eragileak zehazten dituen baldintzetan.
- i) Kontratu bakoitzean biltzen diren zeregin espezifikoak.
- j) Batzorde Eragileak esleitzen dizkion gainerako guztiak enplegatuen kontratu-betebeharren arabera.

35. Artikulua.– Batzorde Eragilearen bileren akta idazkari nagusiak egingen du eta hurrengo bileran onartuko da.

36. Artikulua.– Elkartearen diruzainak elkartearen diru sarrerak eta gastuak kudeatuko ditu, urteko aurrekontuari eta Batzorde Eragilearen erabakiei jarraiki.

Ordainketak agin ditzake, gastuak egin eta elkartearen banku-kontuak kudeatu, Batzorde Eragilearen aurretiko oniritziarekin. Elkartearen banku kontuen titular, besteak beste, elkartearen lehendakaria eta diruzaina izanen dira.

37. Artikulua.– Batzorde Eragileak bilera presentzialak egingo ditu presidentziak egokitzat jotzen duenean edo batzordea osatzen dutenen heren batek hori eskatzen duenean. Bilera hauen deialdia 48 orduko aurrerapenarekin egingo da gutxienez, salbu eta behar bezala justifikatutako ezohiko arrazoiak daudenean, eta gai-zerrenda bat bilduko dute. Nahi duten pertsonak skype edo antzeko bitarteko bidez parte hartu ahal izango dute, betiere hori teknikoki posible bada. Bilera hauek baliodunak izan daitezten gutxienez kideen erdiek egon beharko dute bertan bilera hastean.

Batzorde Eragileko kide diren pertsonak teknologia berrien bidez egin ahalko dituzte beren deliberazioak. Bide honetatik erabakiren bat hartuz gero, presidentziak hurrengo bilera presentzian jakinaraziko du aktan jasota gera dadin.

38. Artikulua.– Batzorde Eragilearen erabakiak bileran parte hartzen duten lagunen gehiengoz hartuko dira. Enpatea suertatzen bada, bigarren bozketa egingo da eta enpateak iraungo balu, lehendakariaren botuak kalitatezko balioa izango du.



Euskal Herriko lesbiana, gay, bisexual,
trans eta intersexualen elkarte

Asociación de gais, lesbianas, bisexuales,
trans e intersexuales del País Vasco

Elkartearen soldata bat jasotzen duten pertsonak ezin izango dute kontratazioekin edo lan-baldintzekin zerikusia duten gai-zerrendako gaien deliberazioan eta bozketan parte hartu, hasieran beren ikuspuntuak azaltzeko aukera izan badezakete ere.

39. Artikulua.– Batzorde Eragileak gonbita ditzake bileretara elkarteko bazkide edo laguntzaileak edo elkartez kanpoko jendea ere, baina hauetako inork ez du boto eskubidea.

40. Artikulua.– Batzorde Eragileak izendatuko ditu Gehituk parte hartzen duen erakundeetan eta foroetan elkarte ordezkatuko duten pertsonak. Izendapen horrek ezarriko ditu ordezkaritzaren berezitasunak, eta betiere, ordezkaritza hori inperatiboa izango da; hau da, Batzorde Eragileak ezarritako irizpideei jarraitu beharko die, ordezkaritza-lanak egingo dituen pertsonak parte hartuko duen bileran landuko diren gaiei dagokienean.

Emandako ordezkaritza osatzen duen elementuetakoren bat ez bete izana Batzorde Eragileak baloratuko du, eta ez-betetze hori egin duen pertsonari ordezkaritza kendu ahal izango dio, edo Estatutuen 16. artikuluan aurrez ikusten diren eskudantziak erabili ahal izango ditu pertsona horrekiko.

Elkarteko bokaliak betetzen dituzten kideek beren karguari dagozkion betebeharrak izango dituzte Zuzendaritza Batzordeko kide direnez (federazioaren zuzendaritza eta kudeaketa arrunta), baita batzordeak berak esleitzen dizkienak ere.

41. Artikulua.– Batzordeetako koordinatzaileak batzorde bakoitzeko bazkideek hautatuko dituzte, hautatu ere bi urterako. Batzar Nagusiak zedarrituko du elkartearen batzordeen kopurua.

V. TITULUA.- BATZORDEAK ETA LURRALDEETAKO ATALAK.

42. Artikulua.– **Batzordeena:** Gehituren barruan lan batzordeak antolatuko dira. Batzar Nagusiak erabakiko du zenbat eta zertarako sortuko diren. Batzorde bakoitzak bere lanak koordinatzeaz eta gainerako batzordeekiko eta Elkartearen organoekiko harremanetaz arduratuko den norbait hautatuko du eta kargutik kendu ahalko du ere. Bazkide orok har dezake batzordeetan parte, hitza eta botoa erabiliz. Laguntzaileek eta Gehituko partaide ez direnek ere har dezakete batzordeetan parte, baina ez dute boto eskubidea.

43. Artikulua.– Gehituren barruan Gazteen talde edo batzordea sortu ahal izango da Gaztegehitu izenarekin, 29 urtez behetiko bazkide edo laguntzaileek beren burua sendotzeko edota gizarteratzeko eta aisialdirako tokiak ukan ditzaten, bai eta Estatutuen 5.g artikulua seinalaturiko helburua beteko duten jarduerak sustatu eta kudeatzeko. Era berean, antzeko helburuak adin handikoei zuzendurik, hirugarren adinekoen Batzordea sor daiteke ere.

44. Artikulua.– 1. Estatutu hauen lehen artikulua aipaturiko zutabeak organuen bitartez gauzatuz, sor daitezke ere soilik lesbianak edo gayak, edota transexualak edo bisexualak bilduko dituzten batzordeak, talde hauei banan-banan harremanetarako tokiak, topaguneak, aisialdirako, sentsibilizaziorako eta bere burua sendotzeko tokiak



Euskal Herriko lesbiana, gay, bisexual,
trans eta intersexualen elkarte

Asociación de gais, lesbianas, bisexuales,
trans e intersexuales del País Vasco

sustatzeko, bai eta elkartearen organo eta jardueren funtzionamendua zeharka egituratzeko ere, halatan talde hauetako bakoitzak aktiboki eta konszienteki parte har dezan eta elkartearen funtzionamendu orokorrari talde gisa dituzten berezitasunak eta izaera berezkoena eskaini diezaizkion, betiere elkartearen kohesio ideologikoari kalte egin gabean, baina bai beraren planteamenduak bertan den aniztasunaz aberastuz.

Batzorde bakoitzak koordinatzaile bat izendatuko du.

2. Bereziki emakume lesbianen eta bisexualen batzordearen beharra nabarmentzen da, lesbianek elkartearen batzorde eta organo erabakitzaileretan parte har dezatela bultzatzeko eta norbanakoen eta taldearen sendotzaile litzatekeen topagune eta eztabaidagunea sortzearen, bai eta elkartearen barruan lesbianeiei bereziki zuzenduriko programa eta politikak sustatzeko asmoz, hartara lesbianak esparru politiko nola kulturakoetan, hala elkartearen barruan nola gizartean oro har, ikusterrazagoak izan daitezen, parte handiagoa har dezaten eta bertakotu daitezen.

3. Era berean eta nor bere esparru bereko antzeko asmoz, gay, transexual eta bisexualen batzordeak sor daitezke ere, aipaturiko lehen artikuluari jarraiki.

45. Artikulua.- Lurralde Ataleena. Batzordeak proposatu eta Batzar Nagusiak onarturiko lurraldeetan lurralde atalak sor daitezke, Elkarte lurralde horietan kudeatzeko. Lurralde Atala sortzea Batzarrak erabakiko du eta horren funtzionamendurako eta antolamendurako arauak Batzar Nagusiak onarturiko araudiaren bitartez ezarriko dira.

VI TITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK.

46. Artikulua.- Elkartearen hizkuntza ofizialak euskara eta gaztelania ditugu. Bazkideek eta laguntzaileek bietariko zeinahi balia dezakete.

Aktak bileran erabilitako hizkuntzan jasoko dira; biak erabili badira bi hizkuntzetan jasoko dira.

47. Artikulua.- Estatutu hauek ezarritako epeen kontaketa honela eginen da:

- a) Egunak dioenean egutegiko egun ulertuko da.
- b) Hilabetekako epeak hilaren egunetik hilaren egunera zenbatuko dira.
- c) Astekako epeak aste egunetik aste egunera ulertuko dira.

Epe oro deialdia egin den egunaren biharamunetik jarriko da abian, baina 13. eta 16. artikuluek diotena gorderik.

48. Artikulua.- Elkarte deseginen da, legeak ezarri zergatiaz gain, eskubidedun diren partaideetako bi herenek Batzar Nagusian hala erabakiz gero edo automatikoki lau bazkide baino gutxiago badira. Deseginez gero, Batzar Nagusiak batzorde kitatzailea izendatuko du, hirugarrenekin loturiko diruzko, legezko edo gizarteko betebeharrak guztiak kitatzeaz arduratzeko; kitatu ondoren Elkartearen aldeko dirurik balego, irabazi asmorik gabeko zein elkarteri emanen zaion erabakiko du.



Euskal Herriko lesbiana, gay, bisexual,
trans eta intersexualen elkarte

Asociación de gais, lesbianas, bisexuales,
trans e intersexuales del País Vasco

49. Artikulua.- Estatutu hauek alda daitezke baldin eta Batzorde Eragileak, edo eskubide osoa duten bazkideen bostenak proposatu eta onartzen bada. Proposaturiko testu berria Batzar Nagusi bereziari behar zaio aurkeztu, berak erabaki dezan. Aldaketa onartzeko bertan diren bazkideen gehiengo absolutuaren, hau da horien erdia gehi baten, aldeko botoak behar dira.

Lehen xedapen gehigarria.- Estatutu hauetako xedapenak araudien bitartez gara daitezke; arau hauek Batzorde Eragileak prestatu eta Batzar Nagusiak onartu behar ditu.

Bigarren xedapen gehigarria.- Estatutuen edo araudien arauak ulertzeko zalantzarik sortuz gero, Batzar Nagusiak ebatziko du arazoa.